

BASES DEL I CONCURSO DE RELATOS CORTOS AFARABA

1. Entidad convocante y patrocinio

La asociación AFARABA convoca el I Concurso de Relatos Cortos AFARABA, con la colaboración de Krelia y el patrocinio de Laboral Kutxa.

- AFARABA es una entidad privada sin ánimo de lucro cuya misión consiste en contribuir al bienestar de las personas con Alzheimer y otras demencias afines, así como de sus familias y personas cuidadoras, mediante el apoyo, la sensibilización social y el desarrollo de recursos especializados.
- Krelia, Asociación de Creadores de Álava, participa como entidad colaboradora, prestando asesoramiento técnico en la definición y organización del certamen, su difusión, la lectura de las obras presentadas y la selección de las premiadas.

2. Objeto y finalidad del certamen

El concurso tiene como finalidad promover la creación literaria y sensibilizar a la sociedad sobre la realidad de las personas afectadas por Alzheimer y otras demencias, así como la de sus familias y entorno cuidador.

El certamen se desarrollará bajo dos modalidades lingüísticas, euskera y castellano, y bajo el siguiente lema oficial:

- **En castellano:** “Cuidar el cerebro, mover el cuerpo, detectar a tiempo. LA SALUD DE MAÑANA SE CUIDA HOY”.
- **En euskera:** “Zaindu garuna, mugitu gorputza, goiz detektatu. BIHARKO OSASUNA GAURTIK ZAINTZEN DA”.

Las obras podrán abordar la temática desde un enfoque literario, emocional, social o creativo, tomando como inspiración los conceptos de prevención, cuidado continuo, salud cerebral y movimiento. Sin abandonar el lema oficial, y dentro del contexto del deterioro cognitivo o la demencia, se admitirán relatos que reflejen tanto la realidad de la enfermedad y sus consecuencias como aquellos que pongan en valor sus aspectos positivos.

3. Participantes

Podrán participar en el concurso personas mayores de 18 años residentes en el Territorio Histórico de Álava/Araba.

Cada participante podrá presentar una única obra por modalidad lingüística.

No podrán participar personas integrantes de la junta directiva de las entidades organizadoras ni miembros del jurado.

4. Características de las obras

Las obras deberán cumplir los siguientes requisitos:

- Ser originales e inéditas.
- No haber sido premiadas anteriormente ni encontrarse pendientes de resolución en otros concursos.
- Estar escritas en lengua castellana o en euskera.
- Tener una extensión mínima de 500 palabras y máxima de 700 palabras.
- Presentarse en formato digital PDF.
- El tema deberá ajustarse al lema y finalidad del certamen.
- No estar firmadas, ni incluir ningún dato que identifique a la persona autora (se utilizará pseudónimo).

La organización se reserva el derecho de excluir aquellas obras que incumplan cualquiera de las presentes bases.

5. Forma de presentación

Las obras se enviarán exclusivamente por correo electrónico a la siguiente dirección: contacto@afaraba.org. En el asunto del correo electrónico deberá indicarse: “Concurso de Relatos Cortos AFARABA”.

Se adjuntarán dos archivos independientes:

- **Archivo 1 (Relato):** Título de la obra, idioma en el que se presenta, texto del relato y seudónimo (no tu nombre real) de la persona autora. Este archivo es el que verá el jurado, así que no debe contener tu nombre real en ningún sitio (ni en el documento, ni en las propiedades/metadatos del archivo, ni en el nombre del archivo).
- **Archivo 2 (Datos personales):** Nombre y apellidos, DNI/NIE, dirección postal, teléfono de contacto, correo electrónico y una declaración responsable indicando que la obra es original e inédita y que acepta íntegramente las presentes bases. Este archivo es solo para la organización, no para el jurado.

6. Plazos

El calendario previsto del certamen será el siguiente:

- Lanzamiento de la convocatoria: 1 de julio de 2026.
- Fecha límite de recepción de originales: 21 de septiembre de 2026.
- Fallo del jurado y comunicación de obras premiadas: 23 de diciembre de 2026.
- Entrega de premios: se celebrará el día 15 de enero de 2027, coincidiendo con el 35º Aniversario de AFARABA.

7. Jurado

El jurado estará integrado por personas vinculadas al ámbito literario, cultural y social, designadas por la organización y con la participación de Krelia como entidad colaboradora.

El jurado valorará especialmente:

- La calidad literaria.
- La originalidad.
- La adecuación temática.
- La sensibilidad y capacidad de transmisión emocional.

El fallo del jurado será inapelable.

8. Premios

Gracias al patrocinio de Laboral Kutxa, se establecen los siguientes galardones:

- **Modalidad en Castellano:** Primer Premio 800 € – Accésit 250 €.
- **Modalidad en Euskera:** Primer Premio 800 € – Accésit 250 €.

El jurado, comprometido con la calidad literaria del certamen, podrá decidir no otorgar el premio de alguna modalidad si considera que las obras presentadas no alcanzan el nivel deseado en esta edición

9. Publicación y derechos de autor

Las personas autoras conservarán los derechos de propiedad intelectual de sus obras.

La organización se reserva la posibilidad de editar una publicación recopilatoria en formato de libro en el año 2027, coincidiendo con el 35º aniversario de AFARABA.

A tal efecto, los y las autoras premiadas y/o seleccionadas ceden los derechos de reproducción y publicación necesarios para esta primera edición a AFARABA, la cual se realizará siempre sin ánimo de lucro y con fines culturales, divulgativos o de sensibilización, citando correspondientemente la autoría.

10. Protección de datos

De conformidad con la normativa vigente en materia de protección de datos personales, los datos facilitados por las personas participantes serán tratados exclusivamente para la gestión del presente certamen.

Los datos no serán cedidos a terceros salvo obligación legal y serán conservados únicamente durante el tiempo necesario para la correcta tramitación del concurso. Las personas participantes podrán ejercer sus derechos de acceso, rectificación, supresión y demás derechos reconocidos por la legislación vigente mediante comunicación dirigida a la entidad convocante.

11. Aceptación de las bases

La participación en este concurso implica la aceptación íntegra de las presentes bases y de las decisiones adoptadas por la organización y el jurado. La organización podrá resolver cualquier circunstancia no prevista en estas bases.

AFARABA KONTAKIZUN LABURREN

I. LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Deialdia egiten duen erakundea eta babesleak

AFARABA elkarteak deitua da AFARABA Kontakizun Laburren I. Lehiaketa, Kreliaren laguntzarekin eta LABORAL Kutxaren babesarekin.

- AFARABA irabazi asmorik gabeko erakunde pribatu bat da, eta haren eginkizuna da Alzheimerra eta antzeko demenziak dituzten pertsonen ongizateari laguntzea, bai eta haien familia eta zaintzaileena ere; horretarako, babesa eskaintzea, gizartea sentsibilizatzea eta baliabide espezializatuak garatzea sustatzen du.
- Kreli Arabako Literatur Sortzaileen Elkarteak erakunde laguntzaile gisa parte hartzen du, eta aholkularitza teknikoa eskaintzen du lehiaketa definitu eta antolatzeko, zabaltzeko, aurkeztutako lanak irakurtzeko eta sarituak hautatzeko.

2. Lehiaketaren xedea eta helburua

Lehiaketaren helburua da literatur sorkuntza sustatzea eta gizartea sentsibilizatzea Alzheimerra eta beste demenzia batzuk dituzten pertsonen errealitateari buruz, bai eta haien familien eta zaintzaileen errealitateari loturik ere.

Lehiaketak bi hizkuntza-modalitate izango ditu, euskara eta gaztelania, eta hau izango da goiburua ofiziala:

- **Euskaraz:** “Zaindu garuna, mugitu gorputza, goiz detektatu. BIHARKO OSASUNA GAURTIK ZAINTZEN DA”.
- **Gaztelaniaz:** “Cuidar el cerebro, mover el cuerpo, detectar a tiempo. LA SALUD DE MAÑANA SE CUIDA HOY”.

Aurkezturiko lanek ikuspegi literario, emozional, sozial edo sortzailean oinarriturik landu ahal izango dute gaia, betiere inspirazio-iturri gisa hartuta prebentzioa, etengabeko zaintza, garunaren osasuna eta mugimendua. Lelo ofiziala alde batera utzi gabe, eta narriadura kognitiboaren edo demenziaren testuinguruan, gaixotasunaren errealitatea eta haren ondorioak islatzen dituzten kontakizunak onartuko dira, bai eta eritasunaren alderdi positiboak balioesten dituztenak ere.

3. Parte-hartzaileak

Arabako Lurralde Historikoan bizi diren 18 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute lehiaketan.

Parte-hartzaile bakoitzak obra bakarra aurkeztu ahal izango du hizkuntza-modalitate bakoitzeko.

Ezingo dute lehiaketan parte hartu erakunde antolatzaileetako zuzendaritza-batzordeko kideek, ezta epaimahaikideek ere.

4. Obren ezaugarriak

Obrek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Originalak eta argitaratu gabeak izatea.
- Ez izatea aurretik sarituak eta ez egotea beste lehiaketa batzuen ebazpenaren zain.
- Euskaraz edo gaztelaniaz idatzita egotea.
- Gutxienez 500 hitz eta gehienez 700 hitz izango dituzte.
- PDF formatu digitalean aurkeztu beharko dira.
- Gaiak bat etorri beharko du lehiaketaren leloarekin eta helburuarekin.
- Lanak ezingo dira egon sinatuta, eta ez dute izango egilea identifikatzeko daturik (izengoiti bat erabiliko da).

Antolatzaileak berea du oinarri hauetako edozein betetzen ez duten obrak baztertzeko eskubidea.

5. Aurkezteko modua

Lanak posta elektronikoz bakarrik bidaliko dira helbide honetara: contacto@afaraba.org. Mezu elektronikoa gailuan, hau adierazi beharko da: "AFARABA Kontakizun Laburren Lehiaketa".

Bi fitxategi independente erantsiko dira:

- **1. fitxategia (kontakizuna):** Lanaren izenburua, zein hizkuntzatan aurkezten den, kontakizunaren testua eta egilearen izenordea (eta ez benetako izena). Fitxategi hori hartuko du epaimahaiak, eta, beraz, ez du eduki behar idazlearen benetako izena (ez dokumentuan, ez fitxategiaren propietateetan/metadatuetan, ez fitxategiaren izenean).
- **2. fitxategia (datu pertsonalak):** Izen-abizenak, NAN/AIZ, posta-helbidea, harremanetarako telefonoa, helbide elektronikoa, eta erantzukizunpeko adierazpen bat, adierazten duena obra originala eta argitaratu gabea dela eta erabat onartzen dituela oinarri hauek. Artxibo hori antolatzaileentzat bakarrik da, ez epaimahaiarentzat.

6. Epeak

Hau da lehiaketaren egutegia:

- Deialdia abiaraztea: 2026ko uztailaren 1a.
- Jatorrizkoak jasotzeko azken eguna: 2026ko irailaren 21a.
- Epaimahaiaren erabakia eta saritutako lanak jakinaraztea: 2026ko abenduaren 23a.
- Sari banaketa: 2027ko urtarrilaren 15ean, AFARABArekin 35. urteurrenarekin bat.

7. Epaimahaia

Arlo literario, kultural eta sozialarekin zerikusia duten pertsonak osatuko dute epaimahaia. Antolatzaileek izendatuko dituzte, eta Kreliak erakunde laguntzaile gisa parte hartuko du.

Epaimahaiak bereziki balioetsiko ditu:

- Literatur kalitatea.
- Originaltasuna.
- Gaiaren egokitzapena.
- Sentsibilitatea eta emozioak transmititzeko gaitasuna.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

8. Sariak

LABORAL Kutxaren babesari esker, sari hauek ezartzen dira:

- **Gaztelaniazko modalitatea:** Lehenbiziko saria: 800 € — Accesita: 250 €.
- **Euskarazko modalitatea:** Lehenbiziko saria: 800 € — Accesita: 250 €.

Epaimahaiak, lehiaketaren literatur kalitatearekin konprometiturik, erabaki ahal izango du modalitatearen bateko saria ez ematea, baldin eta irizten badio aurkeztutako lanak ez direla iristen edizio honetan nahi den mailara.

9. Argitalpena eta egile-eskubideak

Egileek berenak izango dituzte beren obren jabetza intelektualeko eskubideak.

Antolatzaileek aukera izango du, orobat, liburu formatuko bilduma bat argitaratzeko 2027an, AFARABAREN 35. urteurrenarekin bat etorririk.

Horretarako, saritutako eta/edo hautatutako egileek AFARABARI lagako dizkiote lehen edizio honetarako beharrezkoak diren erreprodukzio- eta argitalpen-eskubideak. Argitalpen hori irabazi-asmorik gabe egingo da, kultura-, dibulgazio- edo sentsibilizazio-xedeekin, egilea behar bezala aipatuta.

10. Datuak babestea

Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera, parte-hartzaileek emandako datuak lehiaketa hau kudeatzeko soilik tratatuko dira.

Datuak ez zaizkie lagako hirugarrenei, nola eta ez duen legeak hala agintzen, eta lehiaketa behar bezala izapidetzeko behar den denboran baino ez dira gordeko. Parte-hartzaileek egikaritu ahal izango dituzte datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak, bai eta indarrean dagoen legeriak aitortutako gainerakoak ere, lehiaketa deitzen duen erakundeari jakinarazpen bat bidalita.

11. Oinarriak onartzea

Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du erabat onartzen direla oinarri hauek, bai eta antolatzaileak eta epaimahaiak hartutako erabakiak ere. Erakundeak ebatzi ahal izango du oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein gorabehera.